

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Elkarteei dagokienez ONG-ekin elkarlana egingo da, hauei produktua emango zaie, behin eskaera onartua dela. Hau da, Eko Team-ek hazien kaxak ONG ezberdinei aurkeztuko dizkie, eta baiezkoa ematen dutenekin egingo du lan. Horrela, ONG-ek garatu gabeko herrialdeetan eskaini nahi duten laguntza optimizatzea lortuko da. Beraz, ONG-ak dira Eko Team-en laguntza eta oinarria, produktua aurrera eraman nahi bada herrialde garatuetara iritsi ahal izateko.

Bestalde, Kooperatibekin elkarteak sortuko dira, honen bidez, haziak lortzea posible izango da eta kooperatibekin ez ezik, Euskal Herriko baserrietako nekazariekin ere beste lotura bat egingo litzateke haziak diren baliabide horiek eskuratzeko. Horren bidez, baserritarrek dirua irabaziko lukete eta horrela beraientzat ere onuragarria izango litzateke, salmenta handituko litzaikeelako. Beraz, azken bi kasuetan, erosle eta hornitzaileen arteko harremana eratuko litzateke materialen eskuragarritasuna bermatzeko.